



ARGAZKI LEHIAKETA AZKEN TXANPAN

Zortzi finalistak aukeratuta, X. HITZA Argazki Lehiaketako irabazlea harpidedunen bozkek erabakiko dute 4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-09-27

VII. URTEA 1.787. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ikaztegiatoko plazan ikus zitekeen postuetako bat. R. CALVO

BIGARRENEZ ERE EUSKAL JAIA BASERRITARREZ LEPO

IKAZTEGIETA Jende ugari izan zen atzokoan plazan; postu ugari, eta dantza, sokatira, herri kirolak eta bertsolariak ere izan ziren 7

Danena Olaederrak 19 domina Gipuzkoakoan

VILLABONA Adrian Sasiain pultsulariak lau urrezko domina eskuratu zituen atzoko lehian 6



Goizean gaztetxo ugari hartu zuen parte Iruran, marrazki lehiaketan. A. IMAZ

Aldaban eta Iruran jarraipena izango du gaur ere jai giroak

JAIK Giro polita izan zuten atzo egun osoan; herri kirolak izango dituzte gaur, besteak beste 6

•BERRIREKIERA•

berogas

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza,
gasa, energia berriztagarriak

Gremioen
koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307
www.berogas.com

'Autoritate publikoa'



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Irakasleone aurkako eraso fisikoak ugaritu omen direla eta, egoera bideratzeko zenbait alderdietatik *autoritate publiko* izaera juridikoa eman nahi digute. Jakin izan dudanez, izaera berri honen jabe egingo bagina, ondorio nagusia, gure aurkako erasoek zigor gogorragoa ekarriko luketela litzateke.

Norbaitek sinesten al du honelako neurriekin arazoa konponduko litzatekeela?

Hasteko, egoeraren berri zehatza izan beharko genuke: horren kezagarria al da ikastetxeetan gertatzen ari dena? Hainbeste kasu al daude? Nik ezagutzen dudana errealitatean behintzat ez da horrela, eta gainontzean ere tantaka ematen diren gertakariak direla iruditzen zait. Dena den, eta arazoa benetan kezkatzekoa balitz, egoera zigorrekin konponbidean jarriko al genuke?

Gertakari guztien arazoak anitzak izaten dira; zaila izaten da arazoak bakarreko arazoak topatzea. Ez naiz denak aztertzen hasiko, txoko honetarako nire ustez eskoletan zer egin dezakegun pen-

tsatzearekin nahiko izango dela iruditzen zait.

Ikasleren batek jarrera desegokiak azaltzen dituen lehendabiziko unetik egoeraren azterketa zehatza egin beharko genuke: zeintzuk dira portaera horren arazoak? Zergatik ematen dira? Kasu arinenetan — eta ikasleren adinak hausnarketa pertsonalera ko beta ematen diotenean — ikaslea berarekin aztertu beharko genuke zer gertatzen den, eta beste inoren parte-hartzerik gabe ea posible ote den elkarbizitzarako oinarriko arauak errespetatzeko bere konpromisoa lortzea. Bide honek nahi bezalako emaitza emango ez balu, familiarekin harremanetan jarri beharko ginatke eta denok bat eginik egoera bideratzen saiatu;

honetarako egokia litzateke ikastetxeetan gai hauetan adituak diren lankideak izango bagenitu (eta honek baliabideak handitu eta hobetzea suposatuko luke). Familiak behar bezala erantzuteko gaitasunik izango ez balu administrazioaren laguntza eskatu beharko genuke (gizarte laguntzaileak... Berriz ere baliabideen gaia).

Bide honen ondoan zigorraren alderdiak joan beharko luke; ikastetxeetan, gizartearen gainontzeko eremuetan bezala arauak daude eta arau-hausteek bere ondorioak izaten dituzte, baina ez dute zergatik beti neurri zigortzaileak izan behar; batzuetan beste aukerarik ez da geratuko eta ohiko zigorrak jo beharko dugu (eskola orduz kanpo eskolara joatea, kalera-tzea...) baina ohiko zigorrak erabil-tze soilak ez du arazoa konponduko, eztabaidak, hausnarketa per-sonalak, bitartekarien laguntza,

akordioak eta konpromisoak dira benetako konponbiderako abia-puntua.

Eraso fisiko baten aurrean lehenengo gauza erasotua babestea eta laguntzea da eta ondoren egoera berriz errepika ez dadin behar diren neurriak jarri, eta hori arestian aipatu dudana bidea jarraituz egin daiteke, baina ikastetxeetan irakasten ditugun gaien artean nor bere burua hobeto ezagutzeko, hartu emanak hobetzeko, bestea ulertzeko, gatazkak era baketsuan bideratzeko eta bizikidetzara egokia izateko estrategiak landuko bage-nituzke egoera hobexegoa litzatekeela pentsatzen dut.

Baina, kontuak kontu, merkeagoa da irakasleok *autoritate publi-ko*a izendatzea, garai berrietara egokitzeko behar dugun pres-taketa ematea eta behar diren gai-ontzeko baliabideak jartzea bai-no.

Bertatik bertara

» Iritzia

Hauspoa eta Xepia elkarteak

Bertakoa, ezagutzekoa lelopean abiatu zen dagoeneko nahi-koa sendotuta dagoen Ibarriko irailko azoka eta horri buruz iri-tzia eskatu diguten honetan, uste dugu bi hitz horiek ondo laburtzen dutela zer filosofiak edo asmoak bultzatu zituen ibartarrak azoka eta lehiaketak piparrarena eta ez-tiarena antolatzen.

Zerbait eranstekotan, denbora kontua ere gehitu beharko genio-ke, alegia, *garaian garaikoa*. Izan ere, globalizazioak, besteak beste, jaki bakoitzak zuen aldia ere eza-batu egin du eta urteko une jakin batzuetan izan ohi ziren produk-tuak orain noiznahi dauzkagu sal-tokietan. Ibilian-ibilian, auskalo non, noiz eta nola ekoiztuko pro-



duktuak sartu dira gure etxeetan. Baina ez ahaztu: *Urrutiko intxau-rrak hamalau, gerturatu eta lau*.

Produktzio kontzentratuetan, intentsifikazioan (milaka animalia edo abelburu pilatuta, botikaz josi-

tako soro amaigabeak...) kalitateak eta ekoizpenak ez dute bat egiten eta, gainera, kili-kolo jartzen dute ingurumena bera. Horregatik, es-kertzeko da batzuek egin duten apustua beste produktzio eredu ba-

ten alde: ekoizpena kalitatearen mesedetan jarri, bertako espezie-ak berreskuratu, lurra neurrian erabili, ingurumena zaindu...

Ondorioz, etxetik gertu ditugu baserriak eta abereak; etxe ingu-

ruan baratzak, urte garaiairean ara-bera kolore eta itxurak aldatuz; eli-kagaia sortzen den lekua eta konts-umitzen den lekua bertatik ber-tara —toki askotan ia ezinezkoa dena—... Esan dezakegu, hortaz, suerteko ere bagarela.

Kontuak kontu, apustu handia batzuek egin dutena. Gainerakooi dagokigu orain horiek produzi-tzen dutena erostea, etxeratzea, eta globalizazioak hedatutako kontsumo-sare horretatik irteeta. Egin dezagun hitzetatik ekintzetar-ako saltoa. Ez da erraza ehuneko ehunean gauzak betetzea, baina beti dago zer hobetua eta kontsu-mo kontuetan bada, bai, zer hobe-turik. Ez dezagun, hortaz, galtzen utzi esku-eskura daukagun aukera aparta.

Osasunaren izenean kirola konts-umitzen ari gara aspaldian eta zer hoberik gure osasunerako bertatik bertara dauzkagun produktu horiek kontsumitzea baino. Ho-rretan hasi nahi duenak Ibarri-kan aukera polita dauka gaur, eta le-hendik ari denak ere bai, jakina.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Tolosako azokan eskaintzaren aldateka izan da nabarmentzekoa

PABLO ALBERDI

Espero genuen onddo eta perretxiko golpea oraindik ez da gauzatu gure mendietan. Ikusi genituen, hori bai, bertako perretxiko kilo batzuk, datorrenaren ispilu zirela, baina guztira, oraindik ere, 20 bat kilo.

Onddoak, gibelurdinak, ziza horiak eta nikaloak izan ziren salgai atzokoan. Fruta zerrenda, ordea, guztiz udazkenekoa izan genuen. Piku asko, udareak, matxakanak eta irisagarriak, eta hauekin, gaztaina, urra eta intxaurra berriak.

Barazki zerrendan tolosako babarrun berria aipatuko genuke. Oraindik lekatan edo aletuta, eta hauekin babarrun zuria. Tomatea, baina edo lbarrak piparrak oraindik aukeran daude. Eta pixkanaka brokolia edo eta aza sartzen hasi dira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Zirklamena	5,50	-
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak	14,00	30,00
Gibelurdina	28,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	20,00	-

Fruta

Udarea	1,00	-
Gaztaina	3,00	-
Urra	2,00	3,00
Pikua	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Irasagarra	1,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Baratzuri freskoa	1,50	-
Porrua	1,00	4,00

Barazkiak (kiloa)

Babarrun berria	12,00	-
Tomatea	2,50	3,00
lbarrako piparra	4,00	6,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Perretxikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Arroza	1,90	2,00
Mermelada	3,00	3,60

L Laburrak

Katekesi ikastaro berrirako bilera datorren astean

TOLOSA ● Katekisten taldeak ikasturte berriari begira, jardueren berri eman du. Hala, etzi, astearte, bigarrena izango da 3. mailako gurasoekin, 15:15ean eta 20:00etan Parrokiako etxean. Asteazkenean, hilaren 30ean, 1. mailako haurren datuak jasoko dituzte 18:00etatik 19:00etara Parroki etxeko aretoan. Urriaren 6an, 18:00etan elizatan bilduko dira 3, 4, 5 eta 6. mailako haurrak, eta 2. mailakoak urriaren 7an, 18:00etan Santa Marian.

Ohiko Osoko Bilkura egingo dute etzi

TOLOSA ● Ohiko Osoko Bilkura egingo dute etzi, astearte, 19:30ean hasita, udaletxeko batzar aretoan. Bertan hainbat gai eztabaidatuko dituzte. Horien artean, kontseilari lanetan aritu den Andoni Imazen baja onartzea, Nerea Letamendia zinegotzia Turismo eta Ferial batzordeko lehendakari izendatu izanaren berri ematea, eta lurzoria lagatzea Elkargune berria eraikitzeko Urkizun eta hitzarmena onartzea.

Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera

TOLOSA ● Aitzol Udal Euskaltegia ikasturte berrirako matrikulazio kanpainan dago. Hala, oso plaza gutxi geratzen direla adierazi dute, baina oraindik ere badagoela izena emateko aukera. Beraz, euskara ikasteko interesa duenak Euskaltegia (Rondilla, 34) bertara jo behar du. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egin ahalko da. 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 zenbakietara deitu ahalko da argibide gehiagorako.

Argi moztetak gaur, hainbat kaletan

AZPIEGITURAK ● Tolargik bere instalazioetan zenbait hobekuntza eta mantenu lan egiten ari dela azaldu du, eta horren ondorioz, argindar moztetak egin behar dituela datozen egunetan. Hala, gaur 15:00etatik 16:00etara, Soldadu kaleko 1, 3, 8, 10 eta 12 zenbakietan argia moztuko dute; Antonio Lekuona kaleko 2 eta 7an ere berdin egingo dute, eta baita Pablo Goro-sabel kaleko 4. eta 6. zenbakietan ere.

A Asteko irudia



Autoa zentzuz erabiltzearen onurak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ● Mugikortasun Astearen baitan hainbat ekitaldi egin dituzte bi eskualdeetan aste osoan zehar. Ekimenaren egun nagusia asteartean izan zen, hau da, Autorik Gabeko Eguna, eta bertako mezu nagusia autoaren erabilera zentzuzkoa izaten saiatzea izan zen. Tolosaren kasuan, herenegun herriko gazte ugari kalera irten ziren *stop auto* performance-a eginaz. Urte asko daromatxate ikasleak mugikortasuna lantzen, eta mugikortasun jasan-

garri baterantz eraman beharreko urratsen garrantziaz jabetuta, horren aldeko mezuak zabaldu zituzten kalean. Esaterako, auto batek zenbat gasolio kontsumitzen duen eta zenbat CO2 isurtzen duen aipatu zuten, motorraren arabera datu hori handitzen edo txikitzen delarik. Hiribusa zergatik den ekologikoagoa azaldu zuten, eta baita bidegorria eta lagunbuse bezalako ekitaldiak gomendatu ere. Tolosako Ingurumen Zentrotik ekitaldiaren balorazio oso positi-

boa egin dute, ikastetxeen inplikazioa «erabatekoa» izan dela nabarmenduz, «beraien laguntza gabe, izaera honetako ekitaldi bat aurrera eramatea ezinezkoa baita. Herritarren erantzuna ere ona izan da, interes handia erakutsi dute eta ekitaldia ikustera jende asko hurbildu da». ee.

@ Oharra. HITZAren webgunean hainbat aldaketa egiten ari dira egunotan. Ondorioz, bertan topa daitezkeen zenbait atal blokeatuta daude. Besteak beste, HITZA Argazki Lehiaketako argazkien bisualizazioa. Arazoa ahalik eta azkarren konpontzen saiatuko dira. Bien bitartean, barkatu eragozpenak:

www.tolosaldekohitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AMASATIK PERURA

HITZA Argazki Lehiaketan » Zortzi finalistak aukeratu ditugu, eta orain harpidedunen bozkek erabakiko dute nor den irabazlea; urriaren 1a izango da bozka emateko azken eguna.

IRABAZLEA

X. HITZA Argazki Lehiaketa ari da gurtzainak amaitzeri iristen, eta punturik interesgarrienetan dagoela esan daiteke. Izan ere, baditugu dagoeneko zortzi finalista, eta orain argazki ederrenak aukeratzeko baino ez dago gertatzen.

Hilaren 24a izan zen parte hartzearen eguna, eta ondura arte, 90 argazki jasotzen genituen. Azken urtetako Argazki Lehiaketetan baino emaitza hobea izan dugu, beraz, eskertzea da irakurlearen eskutik ekimen honek jasotzen duen erantzuna. Argazki guztiak ikusgai daude Interneten eskualdeko egunkariaren atarian, hau da, www.tolosaldeko-hitza.info webgunean. Bada, argazki horietatik guztietatik, Hitzaren epaimahaiak «zortzi onenak» hautatu eta aurkeztu ditu, eta orain harpidedunen esku utzi du lanik zailena, argazki ederrenetatik ederrenak inaltzen saiatzekin aukeratzera, alegia.

Argazki Lehiaketako hiru irabazleek sarja izango duten bezala, finalistei bozka emategatik ere prestatu dugu opera. Hala, finalistei bozka ematen dieten harpidedun guztien artean Hitzako produktua zozketatuko ditugu. Urriaren lehen arte izango da bozka emateko aukera, eta horretarako hainbat bide jarriko ditugu aukeraren telefonoz (943 655695) egin ahalko da, edo meuzko (tosaldeko@tolosaldeko-hitza.info). Harpidedun bakoitzeko bozka bat onartuko da, eta harpidedun kodea zehaztu beharko da, bestela, bozkek ez du balorik izango. Finalistak diren argazki bakoitzak bere zenbakia du, eta bozka emateko aukeratuako argazkiaren zenbakia zehaztu beharko da.

Urriaren lehen arte jasotako bozka guztiak zenbatu ostean, lehen hiru bozkatuenak izango ditugu, eta horiek urriaren 4ko alean emango ditugu jakitera.

Sariak irabazleentzat eta bozka ematen dutenentzat
Iteki bezala, sari potoak irabazleko aukera dugu arto ere HITZA Argazki Lehiaketan. Irabazleak Getxariko Solaia hotelaren bi laguntzaletan sartuko dituzte, eta bakoitzak 100 euroko bidaia eta bigarrenak Karlos argazki dedan argazki erreportajea egiteko aukera izango du, eta hirugarrenak, berriz, Gabiloko Kortajatean bi laguntzaletan sartuko da. Sari hauekin, beraz, merezi du lehiaketa parte hartzea.



ZARAUZT » Etxetik gertu ateratako argazki bat aukeratu dute Iker eta Ainarak Argazki Lehiaketarako: «Argazki hau zaruazko hondartzan ateratakoa da. Itsasoaren hasieraa adierazten du». www.ikerainar.com



AMASA » Maria Dolores Arrietak ere etxetik gertu ateratako paisaia eder hau bidali digu Lehiaketan parte hartzeko: «Oporretara ez naiz inora joan, hemen inguruan gelditu naiz eta hemen bidaltzen dizut Argazki Lehiaketarako. Amasan, Garmendi baserrietik ateratako argazki hau, ortozar eta gutxi». www.mariadolores.com



PERU » Aitziber Lekuona Perun izan da udan, eta hau ere kontatu digu: «Paraje izugarriez gozatzeko gain, jendearekin egoteko aukera izan dugu Perun, hain zuzen ere, Puno herrialdean, Titikaka lakuan, Takile izeneko irian. Bertan ospakizun eguna suertatu zitzaigun eta bertakoak jantzi ohiko eta koloretan ezin atxandua zauden. Dantza tradizionalak ikusteko aukera izan genituen eta beraien hizkuntza entzuteko parada ere bai, quechua. Politza benetan». www.aitziberlekuna.com



NEPAL » Ura Iturralde tolosarrak bi ume haur irudia aukeratu du argazki lehiaketarako, eta hau ere kontatu digu: «Aurten oportunitate Nepalen izan gara hilabetez, zoragarria benetan. Kafi manduriko auzo bati bostetik oinez gidatzea horiako ume hauek topatu eta berea izan jasanen gertu ginen eurpean, paisaia oso polita da, eta bertako jendea ere oso atsegina. Berea izan hiltz egitea, haiengana hurbiltzea eta beraien ohi-turak ezagutzeko izan dira bada honen xarmak». www.aitziberlekuna.com



VIETNAM » Nisara Olibetxea ere Vietnamen izan da oportunitate, eta bi gazteboi haur irudia bidali digu: «Vietnameko iparraldeko herri-herria batean, Sapa izenekoan, Hanoiko iskanbilatik ardentu eta lasatasuna topatu genuen. Hmong etniko jendea bizi da hemen, eta etniko horietako nekazko botagarrietan da argazki horietan, bere analitza biziak gainean daramala». www.nisaraolibetxea.com



VIETNAM » «Liko Amabarenen hau ere kontatu digu Vietnamen ateratako irudi honen inguruan: «Aze algarak egin genituen irudi hau ikusi genuenean! Ia ezin sinetsi! Baina hau posible al da? Vietnametik bai dakitela behintzat erentagarritasuna aterazten moto hauek! Baina ondo pentsatuta, berriz gaitzekin». www.aitziberlekuna.com



TXINA » Fernando Rijo tolosarra Txinan izan da, eta irudi hau ere aukeratu du argazki lehiaketarako: «Argazki Txinan ateratako dago, saltzale-erorde baten irudia da, herri bateko azoka batean. Ezin topatu toki hobegorrik hanga egunerokotasuna bizitzeko». www.fernandorijo.com



BENEFARDOA » Haizea jurtok une eder hau ere kontatu digu: «Txorikumeak, amak janaria dakarrien momentu berean. Baxe nafarroko toki batean ateratako irudia da». www.baxenafarroa.com

Aldaban hasiera eduki duten jaiak erdibidea besterik ez dute Iruran

Jaiak » Aldaban atzo jaurti zuten festen hasierako suzuria. Iruran gazteen koadrilak izan ziren protagonista.

ASIER IMAZ

Aldaban atzo hasi ziren jaiak. Iruran berriz San Miguelak aurrera doaz. Tolosako auzoan eta heren-sugearen gotorlekuan hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten atzokoan.

Jaiak gaur jarraituko duten arren, Aldaban astelheanean atsenden hartuko dute, hilaren 29an azken eguna ospatzeko. Iruran atsendena asteazkenean etorriko da, urriaren 2ra bitarte.

» EGITARAUAK

IRURA

Irailak 27, gaur

- **12:00.** Gorritiren abereak.
- **12:30.** Xare eta pilota partidak.
- **18:00.** Herri kirolak, plazan edo frontoian.
- **19:30.** Bertso-saioa plazan.

ALDABA

Irailak 27, gaur

- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** II. Aldabako Txirrindulari Igoera Herrikoia.
- **14:30.** Herri bazkaria.
- **18:00.** Herri kirolak. Aizkolariak: Olasagasti eta Larretxea. Lasto altxaketa lehia. Jarraian erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilari-ekin.



Iruran sokadantza dantzatu zuten mutilek goizean. Aldaban suzuria jaurti zuten jaiak hasiera emanaz. A. IMAZ

19 domina Danena Olaederrarentzat

Villabona » Atzo jokatu zuten Gipuzkoako Halterofilia Txapelketa; Adrian Sasiain pultsulariak lau domina lortu zituen.

A. IMAZ

Villabonako Olaederra Kiroldegian Gipuzkoako 15 eta 17 urte azpikoen txapelketak jokatu ziren atzo. Bertan herriko taldeko, Danenako, pultsulari ugari egon ziren.

Emaitzak eskuan, Danenako Adrian Sasiainen lana azpimarratu behar da, irabazteko aukerak



Txapelketaren amaieran Zarautz eta Villabonako pultsulariak. A. IMAZ

zituena lehia guztiak irabazi baitzuten, guztira urrezko lau domina. Danenak, berriz, guztira 19 domina lortu zituen.

Bestalde, Olaederrakiroldegian, azaroaren 3an, Euskal Herriko 15 urte azpikoen mailako txapelketa jokatuko dute 17:00etatik aurrera.

Sailkapen orokorra

15 urte azpikoen mailan, 45 kilotan, Danenako Igor Galludo izan zen irabazlea. 50 kilotan, talde bereko Kellyam Kintana. 62 kilotan Adrian Sasiain nagusitu zen. 69koan Zarautz taldeko Damel Lopez eta 77 kilotan talde bereko Aitor Martinez.

17 urte azpikoetan, 50 kiloko mailan, Kellyam Kintanak irabazi zuen. 56koan Alain Moleda nagusitu zen. 62koan Adrian Sasiainek jaso zituen kilo gehien. 69koan Enaitz Robles nagusitu zen eta 77 kilotan, irabazleen artean Zarautzko bakarra gainera, Aitor Martinez nagusitu zen.

Puntuetara Adrian Sasiain

Jasotako pisuaren eta pultsulariaren pisuaren arabera, puntukako saria jokatu ohi da halterofilian. Koefiziente onena Adrian Sasiainek lortu zuen, bai 15 urte azpikoen mailan eta baita 17 urte azpikoetan ere.

Txabi Etxebarrietaren omenezko plaka jarri dute

Tolosa » Jorge Oteizak etakidearen omenez egin zuen monolitoaren magalean jarri dute plaka, Olarrain auzoan.

ERREDAKZIOA

Ezezagunek, duela denbora bat, Txabi Etxebarrietaren omenezko plaka kendu zuten Olarrain auzotik. Aste honetan berriz, etakidearen omenezko plaka berri bat jarri dute ezezagunek, Jorge Oteizak



Olarrain auzoan jarri dute berriro ere Etxebarrietaren omenezko plaka. HITZA

Etxebarrietaren omenez egin zuen eskulturaren magalean.

«Eusko gudari eta olerkaria»

Plaka berria jarri dutenek honela azaldu dute ekintzaren zergatia: «Etsaiak ezin du onartu gurea bezalako herri xume batek, bere hartzaparetatik ihes egitea. Baina herri hau txikia izanagatik ere, momentu ilunenetan, beti izan ditu, eta izango ditu, bere sakrifizio eta ereduaz askatasunaren bidea argitu diguten bihotz handiko gizon-emakumeak: Joxi, Joxean, Beltza,

Ina, Esteban, Txirrita... Hala ere, bada pertsona bat betirako lurralde honi loturik geldituko dena: Txabi Etxebarrieta eusko gudari eta olerkaria. Duela 50 urte hasitako guda honetan, askatasunaren alde, bizia eman zuen lehena».

Horregatik, «gudari eta iraultzaile hauen guztien aurrean izan behar dugun umiltasun guztiarekin», aldarrikatu nahi izan dute, Txabi Etxebarrieta «duela 41 urte erail zuten toki berean», bere omenezko plaka berriro ere kokatua izan dela.



Besteak beste, zaldiak, behorrak, usoak, untxiak eta idi pareak ikusi ahal izan ziren plazan. R. CALVO



Bikote batek arratia dantzatu zuen goizean. R. CALVO

Baserritarrez jantzi da herriko plaza

Ikaztegieta » Euskal Jaia izan zen atzo herrian; jende asko gerturatu zen plazara eta asko baserritarrez jantzi ziren gainera.

ERREDAKZIOA

Euskal Jaia izan zen atzo Ikaztegieta. Herriko plaza baserritarrez josita zegoen eta jende asko gerturatu zen ekitaldi desberdinekin gozatzen.

Orain bi urte antolatutako Udalak Euskal Jaia lehen aldiz eta «oso erantzun ona» jaso zuen, nahiz eta eguraldi txarra egin. Aurtengoan, berri, eguraldi ona egin du eta honek ere jende ugari erakarri du

bertara. Ikaztegieta plaza gerturatukoek postu ugari ikusi ahal izan zituzten; batzuek produktu ekologikoak saldu zituzten, produktu iberikoak beste batzuek eta loreak, bonsaiak eta ukenduak saltzen zituztenak ere baziren.

Produktuetako asko herrikoak bertakoak ziren, baina baziren Euskal Herriko beste toki batzuetatik iritsitakoak ere: Martzillatik (Nafarroa), Zaldibiatik, Iruratik...

Kilometroetako materiala ere erosi ahal izan zen.

Haurrak, hala ere, gurasoekin postuetan egon ordez animalien inguruan bildu ziren bereziki; untxiak, usoak, antzara, ahateak, behorrak eta zaldiak ikusi ahal izan ziren, besteren artean.

Idi pareak ere jaitsi zen plazara eta asko izan ziren idi pareak tiraka herrian zehar paseoa eman zutenak.

Beira lantzea eta lihoa

Postu eta animaliez gain, Iruran dagoen Argia Badago tailerreko Igor Obesok beira nola lantzen duen erakutsi zuen eta Zaldibiako

Pedro Arruabarrenak eta Karmele Adurizek belarretik lihoa nola egiten den erakutsi zuten.

Goiz partean asko izan ziren talo eta Udalak jarritako kupeleko sagardoa dastatu zutenak eta postreak ere ezin ziren falta izan, DBHko ikasleek ikas bidaiara joateko dirua lortzeko tartak eta kafea eskaini baitzuten.

Txalapartarien ondotik perrazailak saioa eskaini zuten; lehenik zaldia perratu zuten eta astoari azkazalak txukuntzen aritu ziren ondoren.

Arratia-dantza ikusteko aukera ere izan zen, bikote batek saioa eskaini baitzuen plazan.

Sokotira eta harri-jasotzaileen erakustaldia

Dantzariak eta gero sokatiraren txanda iritsi zen.

Sakanako bost emakume tiralarriak gerturatu ziren Ikaztegieta eta bertaratutakoek desafioa ere bota zieten. Azkenean, herriko bost mutil animatu ziren sokatiran aritzera, baina neskek egurra eman zieten. Sokotira saioa eta gero Bixente Gorostidi, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsoari aritu ziren plazan.

Ekitaldiak arratsaldean jarraitu zuen Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-semeen erakustaldi bikainarekin.



Tangoek hartu dute kalea

TOLOSA » Tango eta milonga doinuak nagusitu ziren atzokoan Tolosako Berdura Plazan. Agata tango argentinararen lagunen Gipuzkoako elkarterko 20 bat bikote izan zi-

ren dantzan hasi zirenak eta euren asmoa herritarrek dantzatzera animatzea bazen ere, ikusleria lotsati samarra izan zen eta ez ziren asko ausartu dantzatzera. R. CALVO



Tibeteko mojeak Triangulon

TOLOSA » Asteartea bitarte Tolosako Triangulo plazara arratsaldeetan gerturatzen denak Tibeteko mojeek bertan jarritako postua ikusiko dute. Tibeteko Atisha kultur el-

karterko kideak dira eta eskumuturrekoak, lepokoak eta euren musika saltzen dute bildutako diruarekin moje gazteentzako logelak eraiki ahal izateko. R. CALVO



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Asteasu.** Azoka Berezia
10:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 20:00etara.
12:00etan arrozene lehiaketaren sari banaketa, 12:30ean esne behien erakustaldia eta 18:00etan ardi txakur lehiaketa.
■ **Bidegoain.** Produktu azoka. Txakolin, sardina eta sagardo dastaketa. Artisauak lanean.

Jaiak

■ **Aldaba.** 11:00etan meza, 12:00etan II. Txirridulari Igoera, 14:30ean herri bazkaria, 18:00etan herri kirolak (Olasagasti eta Larretxea aizkolariak, lasto altxaketa) eta jarraian erromeria Ostolaza eta Andonegirekin.
■ **Irura.** 12:00etan Gorritiren abereak, 12:30ean xake eta pilota, 18:00etan herri kirolak (Aimar Irigoien harri-jasotzailea, Mugerza eta Arrospide Otaño eta Mujika aizkolarien aurka), 19:30ean bertso saioa plazan.

Jubilatuena jaiak

■ **Leaburu.** Jubilatuen eguna: 10:30ean autobusa Txaramatik, 11:00etan meza nagusia, 11:45ean dantzarien saioa, 13:00etan Toka Txapelketa, 14:00etan bazkaria Zazpi Bide elkartearen, bazkalondotan *Txireneko Ogiyik karri etzuz semia* umorezko bakarrizketa eta trikitilariak. Opariak egongo dira.
■ **Ibarra.** Bizi-Nahij jubilatuen elkartearen festa: 09:00etan diana, 11:00etan meza hildako bazkideen alde, 14:00etan bazkaria Belabieta kiroldegian eta 19:30ean amaierako txupinazoa.

Kirola

■ **Zizurkil.** VIII. Zaldi Karrera Zizurkil Goian 18:00etan. 15 zaldik hartuko dute parte.
■ **Bedaio.** II. Raid Lasterketa antolatuko dute Bedaion, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.




Harremanak lantzeko bazkari legea

TOLOSA • Urkizuko Alurtxiki Auzo Elkarteak udazkenarekin batera gogor ekin dio lanari. Hilaren 20an mendi irteera antolatu zuten Zelatunera. Galtzundiren eskutik, hilaren 24ean, Idoia Sanchez ipuin kontalaria eraman zuten bertara. Atzokoan berriz, «ohitura onak mantentzeko eta iragan urtean izan zuen arrakasta kontuan hartuta», Auzo Bazkaria ospatu zuten. Bertan Albiztur goiko eta Urkizuko auzotarrak elkartu ziren, guztira 120 bazkaldar inguru. Giro ederrean bazkari legea egin ostean musika lagun izan zuten arratsaldean. **REBEKA CALVO**

gan urtean izan zuen arrakasta kontuan hartuta», Auzo Bazkaria ospatu zuten. Bertan Albiztur goiko eta Urkizuko auzotarrak elkartu ziren, guztira 120 bazkaldar inguru. Giro ederrean bazkari legea egin ostean musika lagun izan zuten arratsaldean. **REBEKA CALVO**

A Agurrak



Zorionak Jon!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...




Zorionak!

Oinatz (Lizartza). Katxiporreta! Dagoeneko 3 urte. Zorionak etxekoan partetik. Muxu amona.

egunean 20 zentimoren truke, ZUREA DA HITZA

ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak
2 lagunentzat bidaia

ez galdu aukera

902-82 02 01

(Astegetan 08:30-20:30 / Lanbeteetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31680 Leitza

Izen-abizenak, helbidea, herria, PK, telefonoa, elektronikoa eta kontu zenbakia

Deiak eta datuak jasotzeko azken eguna: urriak 30
Saridunaren izena egunkariaren: azaroak 6